

FELLOWS GIPUZKOA PROGRAMA TALENTUDUNAK ERAKARTEKO ETA EUSTEKO (GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA) – [GAO 61 zbkia. 2025eko martxoaren 31](#)

Helburua

Nazioarte mailan garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu osteko formazioa jaso duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Gipuzkoa zentroetan sartzen laguntzea.

Diruz lagundutako jarduerak:

	Talentudunak erakartzea	Talentudunei eustea
Helburua	Nazioarte mailako formazioa duten pertsonak erakarri nahi du entitate onuradunen jardín esparruetan proiektuak gauzatzeko, eta gero, hurrengo fase batean, EAEko ikerketa talderen batean sartzeko.	Jarraipena eman, gehienez hiru urtez, Fellows Gipuzkoa Programaren bidez lagundu diren ikerlariei, ikerketa talde batean sartu arte.
Kontratututako pertsonaren betekizunak	-Doktorea izatea. -Doktoratu osteko formazioan arituak, dagokien esparruan nazioarte mailako garrantzia duen ikerketa talde batean. Ikertzailea kanpotik erakarri dela ulertuko da baldin eta azken hiru urteetan ez badu 6 hilabete baino gehiagoz lan egin Euskal Herrian.	
Jarduerak gauzatzeko epea	Kontratua gauzatzeko epea urtebeteko izango da. Diruz lagundu beharreko jarduerak eskabidea aurkeztzen den egunetik aurrera hasiko dira. Eta 2026ko irailaren 30a baino lehen amaituko dira.	Kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa izango da. Diruz lagundu beharreko jarduerak aurreko deialdian diruz lagundutako erakarpen- edo atxikipen-jarduera amaitzen den egunetik aurrera hasiko dira. Eta 2026ko irailaren 30a baino lehen amaituko dira.
Kontrataziorako diruz lagunduko den zenbatekoak	Kontratuaren 1. urtea: %100 arte, gehienez ere 50.000 euro. Kontratuaren 2.urtea: %80 arte, gehienez ere, 40.000 euro. Kontratuaren 3.urtea: %70arte, gehienez ere, 35.000 euro. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legearen 22.artikuluaren kontrataziorako kostu zenbatetsia 56.891€ euro dira. Ikerketa-talde hartzaileak bere gain hartuko du laguntza horrek estaltzen ez duen kontrataziorako kostua. Era berean, ikerketa-talde hartzaileak bere gain hartuko du kontratuaren kostu osoa, hurrengo urteetan laguntza ematen ez baldin bada, ZTBLk ezartzen dituen 3 urteetan ikertzailearen jarraitasuna betetzeko..	
Webgunea	Web eskaera	
Kontaktua	UPV/EHU rrhh-inves.dgi@ehu.eus 946018169	Gipuzkoako Foru Aldundia berrikuntza@gipuzkoa.eus 943112216

Eskaerek aurkezteko epea:

2025ko maiatzaren 12ra arte

EHUren antolakuntza:

- **2025ko apirilaren 30ean**, azken eguna **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** aplikazioan sortutako eskaeraren zirriborroa bidaltzeko rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikoari. **Bidalitako mezuan kofinantzaketa-iturriak adierazi beharko dira.**
- **2025ko maiatzaren 8an, 12:00etan**, azken eguna aplikazioan dokumentazio guztia igotzeko.
- Deialdiaren amaiera data: **2025ko maiatzaren 12an.**

Horrela egin ezean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du ziurtatzen eskaera garaiz sinatuko denik.

Erakundearen datuak:

- CIF: Q4818001B